

2008an sortu zen; jokoaren balore etikoak indartzea eta jokoaren erabilera okerragatik edo gehiegikeriagatik sortzen diren arazoei aurre egitea du helburu.

Jolasteko aukerak modu arrazional eta zentzuzkoan erabakitzea da Joko Arduratsua; aintzat hartuko dira jolasten den pertsonaren egoera eta norberaren baldintzak, eta jokoa ezingo da arazo bihurtu. Joko Arduratsurako, pertsona kontsumitzaileek egoki informatu eta hezi ondoren hartu beharko dute jolasteko erabakia; helburu bakarra entretenitzea, ondo pasatzea izango da, eta jokoan jartzen denaren balioak ezingo du inoiz gainditu pertsona horrek jokatu ahal duen kopurua.

Joko Arduratsua aisialdirako eta ondo pasatzeko jardura bat da, ez du inoiz gizarte-betebeharretan, behar profesioaletan edo familia-betebeharretan eraginik izango.

## ARDURAZ NOLA JOLASTU

- 1 Jolastu ondo pasatzeko, ez dirua irabazteko edo arazoetatik ihes egiteko.
- 2 Ez izan galdutakoa berreskuratzea helburu edo ez saiatu hori lortzen.
- 3 Jolastu ondo pasatzeko, irabazten baduzu, disfrutatu, baina galtzeko aukera ere aintzat hartu.
- 4 Ez eskatu beste bati dirua jolasteko.
- 5 Ondo pasatzeko erabiltzea erabakita zenuen diru-kopurua baino ez jolastu. Ez erabili inoiz gastu finkoetarako (adibidez, janaria, garraioa...) ohiz erabiltzen duzun dirua.
- 6 Krisialdi emozioaletan norberaren kontrola murrizten da: saiatu halako uneetan ez jolasten.
- 7 Ez utzi jokoa familiekiko edo adiskideekiko harremanetan eragin dezan.
- 8 Finkatu zenbat denbora eta diru jolastuko zaren.
- 9 Joko neurtu bakarra joko dibertigarria da.

ASAJER elkarteak **Joko Arduratsua**ren Nazioarteko Egunean nerabe eta gazteengan jarriko du arreta.

Zenbait ikerketaren arabera, gutxi gorabehera biztanleen % 2k arazoak ditu apustu-jokoekin edo mendetasuna izateko arriskuan dago.

Gazteei buruz ditugun datuen arabera, ausazko jokoekin, diruarekin edo apustuekin (batez ere azken horrekin) arazoak dituzten pertsonen batez besteko adinari dagokionez, gero eta gazteagoak dira. 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen % 2,5ek du apustu-jokoekiko mendetasuna izateko arriskua.

Egun, gero eta 18 eta 25 urte bitarteko gazte gehiago etortzen dira galdetzera, eta jokabide arriskutsuekin hasi dituzten adingabeen kopurua ere handiago da.

Ezin dugu online jokoa ahaztu, oso nabarmenki handitzen ari baita jardura hori. Online jokoekiko kontrol-arazoak dituzten pertsonen kontsultak oso gutxi ziren lehen, baina kontsultarako bigarren arrazoi bihurtu dira egun. Gazteak dira joko-modalitate horrekin eragindako talde nagusia.

“Zeure jokoa kontrolatu. Zeure buruaren alde egin” leloarekin, ASAJERren asmoa da gazteek egiten duten jokoaren erabilerearen inguruan sentsibilizatzea, erabilera hori normalizatu baita. Horren ondorioz, gero eta gazte gehiagok dituzte arazoak. Elkartearen helburua da pertsona gazteei erakustea garrantzitsua dela Joko Kontrolatua egitea, euren burua arriskuan jarri gabe jolastea.

ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

☎ 945 140 468 • 945 234 990



17 FEBRERO **DÍA DEL JUEGO RESPONSABLE**

**CONTROLA TU JUEGO**  
*Aposta por ti*

**JOKO ARDURATSUAREN EGUNA** OTSAILAK 17

**JOKOA KONTROLPEAN IZAN**  
*Egizu apostu gure alde*

www.asajer.org

ASOCIACIÓN ALAVESA  
DE JUGADORES EN  
REHABILITACIÓN  
ERREABILITAZIOAN DIREN  
ASABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Nació en el año 2008 con el objetivo de fortalecer los valores éticos del juego y luchar contra los problemas generados de un mal uso o abuso de los juegos.

El Juego Responsable consiste en la elección racional y sensata de las opciones de juego, teniendo en cuenta la situación y circunstancias personales de la persona que juega, impidiendo que el juego se pueda convertir en un problema. El Juego Responsable implica una decisión informada y educada por parte de las personas consumidoras con el único objetivo del entretenimiento, la distracción y en el cual el valor de lo jugado no supera nunca lo que la persona se puede permitir.

El Juego Responsable es una actividad de ocio y entretenimiento y nunca interfiere en las obligaciones sociales, profesionales o familiares.

## CÓMO JUGAR CON RESPONSABILIDAD

- 1 Juegue por diversión, no por dinero o para evadir problemas.
- 2 No persiga o intente recuperar las pérdidas.
- 3 Juegue para divertirse, disfrute al ganar pero considere que también puede perder.
- 4 No pida dinero prestado para jugar.
- 5 Juegue solo el dinero que haya decidido destinar a la diversión. No utilice nunca el dinero que destine habitualmente a sus gastos fijos, como comida, transporte, ...
- 6 En tiempo de crisis emocional disminuye el autocontrol: evite jugar en esos momentos.
- 7 No permita que el juego afecte a sus relaciones con la familia y amigos.
- 8 Establezca un límite de tiempo y de dinero para jugar.
- 9 El único juego medido es el juego divertido.

ASAJER centrará el **Día Internacional del Juego Responsable** en las **personas adolescentes y jóvenes**.

Según estudios realizados, aproximadamente el **2% de la población tiene problemas o se encuentra en riesgo de caer en la adicción a los juegos de apuestas**.

Los datos que disponemos sobre la población joven nos informan de que se está dando una **disminución en la edad media de las personas con problemas con el juego de azar, dinero y apuestas (éste último juego fundamentalmente)**. El **2,5% de los/as adolescentes entre 15 y 17 años está en riesgo de caer en la adicción a los juegos de apuestas**.

Actualmente han aumentado las consultas de jóvenes entre 18 y 25 años, así como de menores que empiezan a tener conductas de riesgo.

No podemos olvidarnos del juego online, actividad que está aumentando de forma importante. Las personas con problemas de control con el juego online han pasado de ser una demanda minoritaria de tratamiento a convertirse en la segunda causa. La población más afectada en esta modalidad de juego son las personas jóvenes.

Bajo el Lema "Controla tu Juego. Apuesta por ti", ASAJER pretende sensibilizar a la población acerca del uso que hacen las personas jóvenes del juego, el cual se ha normalizado. Esto está generando que cada vez sea más frecuente la presencia de jóvenes con problemas. La Asociación busca transmitir a las personas jóvenes la importancia de practicar un Juego Controlado buscando evitar ponerse en riesgo.

MÁS INFORMACIÓN:

☎ 945 140 468 • 945 234 990



17 FEBRERO **DÍA DEL JUEGO RESPONSABLE**

**CONTROLA TU JUEGO**  
*Apuesta por ti*

**JOKO ARDURATSUAREN EGUNA** OTSAILAK 17  
**JOKOA KONTROLPEAN IZAN**  
*Egizu apostu gure alde*

[www.asajer.org](http://www.asajer.org)

ASOCIACIÓN ALAVESA  
DE JUGADORES EN  
REHABILITACIÓN  
ERREABILITAZIOAN DIREN  
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA

Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava